

GAUR ETA EMEN KRISTAU

«Auxe da dakidan dana: ezer ez dakidana»

Badator gute Txomin bazkal-osteko-txoá eginda, autualdi bat neugaz egin gurarik. Gaztetan urte batzuk abadetzarako ibillia dozu. Beti agertzen yaku kezkaz ta arduraz, batez be gaurko aldaketak dirala-ta, etenbarik burua urratzen.

— Atsaldeon, Txomin. Gaur be badakarzu korapilloren bat, ezta? Kezkaren batek barrua nastau deutsu.

— Keska edo mezka, ez da beingoan argitzekoa, beintzat.

— Zer ba, eragiñago ta zikiñago ala?

— Zer deritxazu, Kelmen: onebesteko aldaketa, dana azpikoz-gora ipiñi bearra ontzat emoten dozu? Eta esango neuke, Eleizea bera dala geien aldatu dana, sakramentuak eta ebajelioa bera be ortxe darabille gora ta beera.

— Ara, Txomin, ez da orrenbesterako be. Jakiña, norbera zenbat eta denpora geiago geldi egon eta besteak ibilli, norbera urriñago. Begira, zu zeu Txomin, ez zara bat eta bera izango gaur eta 5 edo 15 edo 25 urte zeunkazanean, ezta? Pertsona bera be bizitzan zear milla aldiz eta moduz aldatzen da; eta norbere inguruan otz-bero ta argi-illun asko darian, orduan eta geiago eta ariñago, atan be.

— Ori bai, Kelmen; baiña dana olan aldatu? Eleizea be bai? Eleiza barria asmau bear deuskuze, ala? Ia lengorik ez da geratu ikutu bakorik ezer be.

— Tira, Txomin, tira: 70 urteko gizona 10 urteko mutikoaren antzera, praka motxetan geratu danaren antza dogu sarritan. Munduko indar ta almenak nagusitu yakuz, ume izatetik nagusi izatera eldu dira, eta geu fededunok aurkitu gara praka motxetan. Orregaitik edo gabiltz erantzun billa, gaurkorako egoki diran bide ta jokabide barrien billa. Eta ez da erreza, eta sarri askotan arinkeriz be jokatu izan dogu, aldakatu edo apurtu bear ez ziran gauzak be bertan beera galduaz.

— Amaika olako ikusi dogu gure bartarretan. Aize-bolada gogorrez astindu ta ondora jausten diran sagarren antzera, geien baten mailatuta eta alperrik galduta geratu gara sasoi bateko kristiñauok.

— Alan da guzti be, aurrera egin bear dogu, Txomin; illeta joateak ez gaitu bide onera aterako; bai, len baiño kontu geiagogaz ibiliaz. Baiña ibilli, ez geldi egonaz.

— Olan dala, emen betikorik ez dago ezer, Kelmen.

— Betikoa, Jaungoikoa, Txomin, eta bera be bakoitzak bere erakoa asmetan dogu sarri.

— Au leengo dotriñea baiño gatzagoa da, Kelmen. An eta orduan dana egoan argi ta garbi esanda; eta arazorik gatxenak. «Eleizako jakitunai itanduteko» esaten euskuen; orain zueok be or zabize erantzun-billa.

— Ez aztu au, Txomin: leengoak be bide onean egon ziñeen leenago; orduko

argitan axe ikusten zenduen; gaurko argi ta girotan auxe ikusten dogu; Jaungoikoak emondako almenez jokatuaz, gizonak aurrerakada aundiak egiten dauz, gizonaren inguruko giroa azpi-azpitik aldatu egiten da; eta erdi lotan eta geldi, betikoari eutsiaz egon dan gizona barriro asi bear billa, bere barrua ta ingurua arakatzen. Eta au beti da gogorra, gatxa, leengo ziurtasunak galtzen doguzala.

— Olakorik! Olan dala, ikustekoak daukaguz oraindiño, Kelmen jauna!

— Bai, Txomin, batzuk geure begiz ikustekoak izan gaitezala mundu onetan eta besteak Jaungoikoaren argitan, betiko bizitzan. Bien bitartian, gaur atzo baiño geiago eta biar gaur baiño obeto; egi osoa begi-betean geroko betikoan.

- Mundu barria dogu,
ez aztu au, Txomin
- Orrexegaitik, Kelmen,
gaur askok dauka min.
- Egi-billa guztiok
jokatu daigun pin
- egi-zale naizela
egiten deutsut zin.
- Iñork be ez dakigu
egia osorik
- betetzeko lain, Kelmen,
baietz uste dot nik.
- Aurrera jarraitzeko
ba al dozu gogorik?
- Urrengoan geiago
gaur bada naikorik.